




[www.protokoloa.eus](http://www.protokoloa.eus)

# Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.  
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

This work is licensed under the Creative Commons Attribution-ShareAlike 4.0 International (CC BY-SA 4.0) License.  
To view a copy of this license, visit <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>





# Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

*« Gizaki orori dagozkio, Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasun berdinak; ez da inor diskriminatuko arraza, larru-kolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.»*

**GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA, 2. ARTIKULUA**

# SARRERA

Gizakiaren oinarritzko eskubide horietan kokatu behar ditugu, zalantzarik gabe, hizkuntza-eskubideak. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza-errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza-aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu. Eta, horrexegatik, dokumentu honek tresna bat eskaini nahi du bide honetan, hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena, bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza-komunitateekiko jardun demokratikoaren bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte. Halaber, hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate haren barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa. Horrexegatik, hain zuzen ere, dokumentu honetako sinatzaileok uste dugu hizkuntza-komunitate orok eskubidea duela baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin, bai eta hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren etorkizuneko proiektzioak bermatzeko beharrezko baliabideak izateko ere.

Hizkuntza-aniztasuna izan da Europaren berrezko ezaugarrietako bat. Europa osatzen dutenen artean ez dago Estatu elebakarrik, eta egun aniztasun hori are handiagoa izaten ari da pertsonon mugikortasunarengatik.

Halere, European hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa oso desberdina da toki batetik bestera, eta horrek biziki kezkatzen gaitu. Izan ere, arestian esan bezala, hizkuntza-eskubideak oinarritzko eskubideen barruan kokatu behar baditugu, eta berdintasunean oinarritutako Europa justuago baten alde egiten badugu, aniztasunaren kudeaketa demokratikoak oinarritzko zutabe izan beharko luke.

Kudeaketa-eredu desberdinak bai, non mutur batean egoera gutxiagotuan dauden komunitateen eskubideen aitortza eta bermea kudeaketaren ardatza diren; eta beste muturrean egoera gutxiagotuan dauden komunitateei existentzia bera ere ez zaien aitortzen. Horiexek dira, bai, hizkuntza-kudeaketaren eredu bi muturrak, eta bi mutur horietako edota horien arteko politika arras desberdinak garatzen dira egun European zehar.

Kudeaketa-ereduak desberdinak izan arren, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten duten gizarte eragileek antzekotasun handiak dituzte. Hizkuntzen egoera desberdinak dira, bai, baina gizarte eragileek, alegia, gizarte zibilaren lanari esker lortu izan dira emaitzarik eragingarriak. Gizarte zibila izan da aitzindaria hiztun berriak sortzeko proiektuak garatzen. Gizarte zibila izan da aitzindaria hiztunentzako espazio berriak sortzeko proiektuak garatzen. Gizarte zibila izan da aitzindaria hizkuntza gutxiagotuetan bizi ahal izateko tresnak sortzeko proiektuak garatzen. Eta, jakina, gizarte zibilak aldarrikatu du hamarkadetan zehar hizkuntza-komunitateek zeinek bere hizkuntzan bizitzeko eskubidea. Hartara, gizarte zibilak benetako demokrazia bermatzeko kanpaina iraunkorra egin izan duela ondorioztatzen dugu, eta, beraz, zilegitasun osoa ematen diogu gizarte zibilari etorkizunerako urratsak zein izan beharko liratekeen definitzeko.

# ATARIKOA

2016ko abenduaren 17an Donostian Protokolo honetako sinatzaileok Europa mailan garatutako prozesu parte hartzaile baten ondorioz adostutako oinarriak berretsi egin ditugu eta

- 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio guztiak geure egiten ditugula **aitortuta**,
- Hizkuntza-eskubideak oinarrizko eskubideetan kokatu, eta gizarte demokratikoago bat eraikitzeko horien bermea lehentasun bihurtu behar dela **onartuta**,
- Azken hamarkadotan egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen berreskurapen-prozesuetan ekarpen handiak egin ditugula hiztun berriak, hizkuntzarentzako tresnak eta hizkuntza erabiltzeko espazioak sortzeko eta beti ere hizkuntzen beharretatik jarduten dugula **kontuan hartuta**,
- European hizkuntza-eskubideak modu integralean aitortzeko eta modu bateratuan bermatzeko tresnarik indarrean jarri ez dela **ondorioztatuta**,
- Egun hizkuntzen kudeaketa demokratikoa bermatzeko, European gizarte zibilak sortu eta garatu duen tresna praktiko, eragingarri eta bateraturik ez dagoelako **ardurata**,
- Gutxiagotzearen naturalizazioaren ondorioz, Europako herritar asko beren hizkuntza-eskubideak zein diren ere kontziente ez direlako **kezkatuta**,

**honako hauek onartu ditugu:**

## 1. ARTIKULUA: SUBJEKTUAK

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipioei eta kontzeptuen zehazpenei jarraiki, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan eskubideen babeserako subjektuak Deklarazioak jasotako berdinak izango dira. Hartara, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, Protokoloan hizkuntza-komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatuta, eremu hori errekonozituta ala ez, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena, kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohe-siorako bide bezala. Lurralde bateko berezko hizkuntza deizioarekin, lurralde horretan zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egoten zaio erreferentzia. Halaber, Deklarazioak jaso bezala, Protokoloak ere hizkuntza-taldetzat dauka beste hizkuntza-komunitate baten lur eremuan kokatuta dagoen eta hizkuntza bera duen edozein giza talde.

Halaber, Protokoloak eskubide pertsonal berezintzat, eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat dauzka honako hauek: hizkuntza-komunitate bateko kideztat aitortua izateko eskubidea; jendaurrean nola maila pribatuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea; norberaren izena erabiltzeko eskubidea; jatorrizko hizkuntza-komunitateko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea; bai eta kultura propioa eta garatzeko eskubidea ere.

## 2. ARTIKULUA: HELBURUAK

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak hiru helburu nagusi bete nahi ditu:

- Hizkuntza-aniztasuna bermatzea eta

hizkuntzen garapena ziurtatzea elkarbizitzarako eta bakerako oinarri funtsezkoak direla aldarrikatzea.

- Hizkuntza-berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eragingarria sortzea.
- Hizkuntza-komunitateak prozesu honetan subjektu gisa agertzea eta gizartea kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.

## 3. ARTIKULUA: BALIOAK

**3.1.** Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarrizko lau balio edo printzipiok ardaztu dute:

- **Elkarbizitza eta bakea:** Protokoloak tresna bat eskaini nahi du, eta gizarte ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena da. Kontuan izan behar dugu, bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorioa dela. Hartara, hizkuntza-komunitateen duintasunaren errespetuak ekarriko du bakea. *Pax linguae* hitzaren edukia bermatzeko tresna prestatzea izan da gure betekizuna
- **Aniztasuna:** Hizkuntza-aniztasuna babesten dugu gizateria osoaren aberastasun kulturalaren parte delako. Berau zaintzea guztion betebeharrak etikoa delakoan gaude. Pertsonak eta gizarteak homogeneizazio kulturalera daramatzaten indar eta inertzia indartsuak daude. Homogenizazioak horiek pobretzea suposatuko lukeelako, uste dugu beharrezkoa dela hizkuntza-aniztasunaren balioa goraipatzea.
- **Berdintasuna:** Munduko hizkuntza guztiei balio bera aitortzen diegu. Gaur egun, euren egoeran desberdintasun



handiak daude. Zenbaitek garapenerako oztupoak dituzte eta herritarren arteko oinarritzko printzipio den berdintasuna ez da bermatzen.

• **Eskubideak:** Pertsona eta talde ororen eskubideak babesten ditugu. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin bat egiten dugu; bertan aitortzen zaio pertsona orori hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea. Halaber, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren espirituarekin eta bertan aitortzen diren eskubideak ditugu ardatz; hain zuzen ere, bertan aitortzen diren pertsonen, taldeen eta komunitateen hizkuntza eskubideak.

**3.2.** Gaur egun Europan hizkuntza-komunitateek bizi dituzten baldintzetan desorekak eta desabantailak dauenez, egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzei lehentasunezko trataera ematea berdintasunerako urrats bezala ulertzen dugu. Hizkuntzen garapenerako baldintza sozial, politiko eta ekonomiko egokiak bermatuz soilik babestu daiteke hizkuntza-aniztasuna. Hurrengo belaunaldiei ahalik eta testuinguru kultural eta linguistiko aberatsena utzi ahal izateko, pertsonen eta komunitateen aukera-berdintasuna, bai eta horien eskubideak ere, bermatzeko baldintzak sortu nahi ditugu.

## 4. ARTIKULUA: GIZARTE ERAGILEAK GILTZARRI

**4.1.** Aitortu nahiko genuke Europako hizkuntza-komunitateen inguruan eratu-tako gizarte zibil antolatua den lana. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoa suspertu ditu, eta horri esker lortu da herritarren sentsibilitatean eragitea.

**4.2.** Europa osoan zehar hizkuntza-komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Dokumentu honek horien bilgune izan nahi du, Europako gizarte zibillak hizkuntza-aniztasunaren garapenerako proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan.

**4.3.** Hizkuntzen beharretatik lan egiten duten ehunka eragile dira, ezelango dependentzia politiko edo instituzionalik gabekoak, modu sinbolikoan, milioika hiztunen bozeramaileak. Horrexegatik, hain zuzen ere, dokumentu honetan jasotako edukia hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten duten gizarte eragileen adostasunetik eraiki da, eta horrek ematen dio Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloari baliorik handiena.

Hartara, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa sinatu dugun gizarte eragileok aipatu dokumentua gure oinarri aldarrikatzaileetan txertatzeko konpromisoa hartu dugu, Europako gizarte eragileok modu bateratuan jardun ahal izateko.

## 5. ARTIKULUA: ERREFERENTZIAK

**5.1.** 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere hitzaurrean gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean fedea agertzen du, eta bigarren artikuluan jasotzen du eskubide eta askatasunak izaki orori dagozkiola, eta ez dela inor bereziko, besteak beste, hizkuntzaren gorabeheragatik.

1950eko azaroaren 14ko Europako Kontsei-

luaren Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Hitzarmenak hitzaurrean adierazten du Kontseiluaren helburuetako bat kideen arteko lotura estutzea dela, eta hori lortzeko bidea giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesa eta garapena dela. Halaber, Hitzarmenaren 14. artikuluan berresten du eskubide eta askatasun horiek bermatu egin behar direla hizkuntza-bereizkeriarik gabe

**5.2.** Bi oinarri horien garapen gisa ulertzen dugu Bartzelonan 1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa zehazteko oinarrizko dokumentua, eta horixe izan da dokumentu hau prestatzeko izan dugun erreferente nagusia.

**5.3.** Halaber, eta Protokoloak jasotzen dituen neurrien adierazleak ebaluatzeko tresna osagarri gisa, UNESCOk 2003an onartutako Hizkuntzen Bizitasuna eta Desagertzeko Arriskua izeneko txostenean jasotakoak hartu izan dira kontuan.

Horiekin batera, eta modu osagarrian, Protokolo honek beste hainbat erreferente ere izan ditu lagungarri (ikus 1. eranskina).

## 6. ARTIKULUA: PROTOKOLOAREN EGITURA

*Protokoloa* terminoa itun edo hitzarmen bezalako adierazpenak baino formalagoak ez diren akordioetarako erabiltzen dela ohartuta bagaude ere, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa itun zehatz batean oinarritutakoa izango da, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean. Hartara, Protokolo honek jasotzen dituen neurriek aipatu Deklarazioak aitortutako eskubideak bermatzeari begirako bide-orria jasoko dute.

Horrela, hiru zati nagusi agertzen ditu Protokoloak :

### 6.1. EREMUAK

Protokoloaren Talde Antolatzaileak Deklarazioak berariaz jasotzen dituen eremuak bere horretan mantentzeko erabakia hartu zuen. Hartara, zazpi lan-eremu identifikatu dira:

- > Printzipio orokorrak, diskriminazioa eta eskubideak
- > Administrazio publikoa eta instituzioak
- > Hezkuntza
- > Eremu sozioekonomikoa
- > Onomastika
- > Hedabideak eta teknologia berriak
- > Kultura

### 6.2. NEURRIAK

Eremu bakoitzean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotako eskubideak bermatzeko neurri-zerrenda jaso da, hain zuzen ere, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapen-prozesuetan jarduten duten eragileek proposatutakoak.

### 6.3. ADIERAZLEAK

Neurrien betetze-maila baloratu ahal izateko ebaluazio-adierazleak zehaztu dira. Hartara, Protokoloan jasotzen diren neurri guztiak egoki baloratuz gero, ondoriozta genezake hizkuntza-komunitate horri hizkuntza-eskubideak bermatzen zaizkiola.

## 7. ARTIKULUA: PROTOKOLOA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

### 7.1. NEURRIEN HURRENKERA ETA DENBORALIZAZIOA

Hizkuntza-komunitate gutxiagotuen egoera arras desberdina da Europan zehar. Hitzaurrean adierazi bezala, hizkuntza-aniztasuna oso modu desberdinetan kudeatu da azken hamarkadotan eta horrek eragin zuzena izan du hizkuntza-eskubideen bermean.

Horrexegatik Protokolo honetan agertzen diren neurriak betetzeari begira hizkuntza-komunitateetako gizarte eragileek zehaztuko dituzte bai neurrien hurrenkera zein denboralizazioa.

## 7.2. KAIERA

Aurreko atalean jasotako denboralizazioa burutzeko eta gizarte eragileen lana errazteko, Protokoloarekin batera Kaiera egongo da. Kaiera Protokoloa sinatu duten gizarte-eragileek osatuko dute, eta bertan Protokoloak jasotzen dituen neurriak bete direla egiaztatzeko adierazleen betetze-mailaren jarraipena egin ahal izango da.

Kaiera betetzeko jarraibide zehatzak bertan agertzen dira.

## 7.3. KAIERA PRESTATZEKO

Gizarte eragileek osatuko dute Protokoloan oinarritutako Kaiera.

Kaiera betetzean Protokoloak agertzen dituen neurrietatik zein betetzen den zehaztu ostean, beste neurri guztiak zein hurrenkeratan bete beharko liratekeen, eta horien betetze-mailari buruzko adierazleak, bai eta denboralizazioa ere, zehaztuko dituzte.

Garrantzitsua da Protokoloak biltzen dituen neurri guztiak jasotzea hizkuntza bakoitzari dagokion fitxan, izan ere, neurri guztiak betetzeak hizkuntza-eskubideen berme osoa dagoela adierazten du.

Halere, Kaierako taulak betetzerakoan, gizarte eragileek aukera izango dute, bertan jasotzen diren neurriak erdiesteko tarteko beste neurri batzuk gehitzeko.

## 7.4. KAIERAREN JARRAIPENA

Kaiera osatuta eragileek interpelaziorako baliatu ahal izango dute, besteak beste, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-poli-

tika kudeatzen dituzten tokiko, eskualdeko, erregioko edo Estatutako instituzioen aurrean.

Interpelazio horietan eragileek aukera izango dute Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak prozesuan zein onartutakoan jaso duen babes osoa azpimarratzeko.

## 7.5. HERRI AGINTEEN ATXIKIMENDUA

Eragileek lanketa berezitua egingo dute hizkuntza-politikaren kudeaketari lotzen zaizkion tokiko, eskualdeko, erregioko edota Estatuko botere publikoek Protokoloak zehaztutako jarraibideei positiboki erantzuteko, bai eta Protokoloa bera aintzat hartu beharreko tresna gisa aintzatesteko ere.

Halaber, aukerak daudenean, eragileek herri aginteekin batera lan egingo dute Protokolo honetan jasotzen diren neurriak abian jar ditzaten, bai eta baliabide egoiak esleitu ditzaten ere.

# 8. ARTIKULUA: JARRAIPEN BATZORDEA

2016ko abenduaren 17tik aurrera Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren lanketarekin jarraitu ahal izateko Jarraipen Batzordea eratuko da.

## 8.1. OSAERA

Proiektuaren jatorrizko eta oinarrizko espirituari jarraiki, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Jarraipen Batzordea gizarte eragileek osatuko dute.

Lehen Jarraipen Batzordea Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa bideratu duen Talde Antolatzaileko kideek osatuko dute. Hurrengokoak Jarraipen Batzordeak berak zehaztuko ditu.

Erakunde horiek honako hauek dira:

- CIEMEN
- ECMI Gutxiengoen Aferetarako Europako Zentroa
- LINGUAPAX INTERNATIONAL
- ELEN Hizkuntza Berdintasunaren aldeko Europako Sarea
- UNPO Ordezkatutako Gabeko Nazioen eta Jendeen Erakundeak
- PEN INTERNATIONAL

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA arduratuko da Jarraipen Batzordearen idazkari-ritzaz.

## 8.2. FUNTZIOAK

Jarraipen Batzordeak bost funtzio nagusi izango ditu:

### A. Gizarte eragileak Protokoloari atxikiaraztea

Jarraipen Batzordeak lan egingo du hizkuntzen alde lan egiten duten gizarte eragile gehiagok sina dezaten Protokoloa.

### B. Protokoloaren inplementazioa barne politikan

Jarraipen Batzordeak hizkuntza-komunitateetako eragileek Protokoloa inplementatzeko egindako eskaeren jarraipena egingo du. Horretarako laguntza eskainiko du Protokoloaren betetze-maila koordinatzeko.

### C. Kaieren bateratzea eta partekatzea

Gizarte eragileek Kaiera betetzen dutenean, horren ale bat Jarraipen Batzordeari helaraziko diote. Jarraipen Batzordeak horiek baliatuko ditu beste hizkuntza-komunitate batzuetako eragileei Kaierak prestatzen laguntzeko.

### D. Protokoloaren aitortza instituzioetan

Gizarte eragileek tokiko, eskualdeko, erregio- edo Estatuko instituzioetan Protokoloari aitortza emateko egingo duten lanketaren jar-

raipena egingo du.

Halaber, Protokoloari aitortza egiten dioten toki, eskualde edo estatu mailako instituzioen zerrenda gaurkotuko du.

### E. Protokoloaren legitimazioa nazioarteko instituzioetan

Jarraipen Batzordeak lanketa iraunkorra egingo du Protokoloari nazioarteko instituzioetan legitimazioa aitortzeko, bai eta erreferentziako dokumentu bihurtu dadin ere.

## 9. ARTIKULUA

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren eta Kaieraren kopia bana, honako instituzio hauei igorriko zaie sinatu eta berehala:

- Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusi António Guterres jaunari
- Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen goi komisario Zeid Ra'ad Al Hussein jaunari
- Nazio Batuen Erakundearen Gutxiengoen Aferetarako Aditu Independente Rita Izsák andreari
- Europako Kontseiluko idazkari nagusi Thorbjørn Jagland jaunari
- Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Auzitegiko lehendakari Guido Raimondi jaunari
- Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisario Nils Muižnieks jaunari
- Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundearen idazkari nagusi Lamberto Zannier jaunari
- Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundearen Gutxiengo Nazionalen goi komisario Astrid Thors andreari

**Donostian sinatua  
2016ko abenduaren 17an**

# NEURRIAK

## 1. PRINTZIPIOAK, DISKRIMINAZIOA, ESKUBIDEAK

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 1, 2, 5, 7 eta 10. artikuluekin lotutako neurriak.

### A. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

|    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |   |
|----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| 1. | Araututa dago hizkuntza-eskubideak giza eskubideak direla.                                                                                                                                                                                                                                                                | 1 |
| 2. | Edozein hizkuntzatako hiztunen oinarritzko eskubideei dagokienez, pertsona orok du interprete baten laguntza jasotzeko eskubidea, epaitegian erabiltzen den hizkuntza ulertzen ez badu edo hizkuntza horretan hitz egiten ez badaki (hizkuntza-komunitateko herritarren eskubideak 29-34. neurrien bidez bermatzen dira). | 2 |
| 3. | Edozein hizkuntzatako hiztunen oinarritzko eskubideei dagokienez, atxilotu orori berehala jakinarazten zaio, ulertzen duen hizkuntza batean, zergatik atxilotu duten eta zer leporatzen dioten.                                                                                                                           | 3 |

### B. HIZKUNTZAGATIKO DISKRIMINAZIOA

|    |                                                                |   |
|----|----------------------------------------------------------------|---|
| 1. | Legearen arabera hizkuntzagatiko diskriminazioa onartezina da. | 4 |
|----|----------------------------------------------------------------|---|

### C. HIZKUNTZAREN ESTATUSA: HIZKUNTZA OFIZIALAK

|    |                                                                                             |   |
|----|---------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| 1. | Legeak errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala esleitzen dizkio hizkuntza gutxituari. | 5 |
|----|---------------------------------------------------------------------------------------------|---|

### D. LEGEAK

|    |                                                                                                            |   |
|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| 1. | Administrazioak lege eta araudiak onartu ditu hizkuntza gutxituaren estatus ofiziala garatu eta arautzeko. | 6 |
|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|

2. Jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera bermatuta dago.

7

## E. NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. Hizkuntza-komunitatearen hizkuntza gutxituta edo baztertuta badago, Administrazioak neurri zuzentzaile osagarri bereziak hartzen ditu hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

8

## F. BALIABIDEAK

1. Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatuta daude hizkuntza-komunitatearen eskubideak babesteko.

9

## G. NEURRI POSITIBOAK

1. Hizkuntza gutxituak lehentasuna du hizkuntza ofizial eta nagusiaren aurrean.

10

## H. UNIBERTSALTASUN-PRINTZIOA

1. Hizkuntzaren ezagutza unibertsalitzatzeko neurriak abian daude, hezkuntzan bereziki.

11

## I. ZEHAR-LERROTASUNA

1. Zeharkako ikuspegia aplikatzen du Administrazioak bere ekintzetan; erakunde publikoko atal, departamendu eta alor guztietan aplikatzekoak diren neurri eta irizpide orokorrak finkatu eta zehaztu dira, hizkuntza gutxitua jendaurreko hizkuntza eta barne-laneko hizkuntza izan dadin.
2. Hizkuntza-eskubideak babestu eta zehar-lerrotasuna bermatzearren, administrazioak hizkuntza-politikari zuzendaritza politikoan leku zehatza esleitzen dio, gainerako atal guztietan eragin zuzen eta esanguratsua izan dezan.

12

13

## J. HIZKUNTZAREN ARNASGUNEAK

1. Hizkuntza gutxitua nagusi den eremuetan, Administrazioak eta Instituzioek errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatzen dute.

14

## K. MEMORIA HISTORIKOA

1. Administrazio publikoak baliabideak eskaintzen ditu gaur egun hizkuntzaren galerari buruzko ezagutza izateko.

15

## 2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA INSTITUZIOAK

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22. artikuluekin lotutako neurriak.

### A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

#### 1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

- |      |                                                                                                                   |    |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1.1. | Araututa dago hizkuntza gutxituan ahoz zein idatziz egindako administrazio-prozedurek balio juridiko osoa dutela. | 16 |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

#### 2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- |     |                                                                                                       |    |
|-----|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.1 | Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei. | 17 |
|-----|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |      |                                                                                                   |    |
|------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.2. | Jendaurrean diharduten langileek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen dute administrazioek. | 18 |
|------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |      |                                                                                                                       |    |
|------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.3. | Zerbitzuak hizkuntza gutxituan emateko, hizkuntza-plangintza orokor bat aplikatzen dute Administrazioko alor guztiek. | 19 |
|------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |        |                                                                                                                                      |    |
|--------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.3.1. | Instituzio guztiek (udal, lurralde, erkidego, estatu nahiz beste edozein mailatakoek) plangintza betetzeko egutegi bat zehaztu dute. | 20 |
|--------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |        |                                                                                                                                                                              |    |
|--------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.3.2. | Zerbitzuak hizkuntza gutxituan emateko helburuak eta hobekuntza-indizeak zehazten dira plangintzan, bai eta plangintzaren garapenaren barneko nahiz kanpoko ebaluazioak ere. | 21 |
|--------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |        |                                                                                                                                                                                                       |    |
|--------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.3.3. | Administrazioko lanpostuetan hizkuntza gutxituan aritzeko behar diren komunikazio-trebetasunei eta hizkuntza-gaitasunari dagozkion lehentasunak aztertu, zehaztu eta identifikatzen ditu plangintzak. | 22 |
|--------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |        |                                                                                                         |    |
|--------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.3.4. | Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak. | 23 |
|--------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

#### 3. KANPO-KONTRATAZIOA

- |     |                                                                                                                                                               |    |
|-----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 3.1 | Administrazioek beren zerbitzuak kanpoko enpresei esleitzean, hizkuntza-plangintzako neurriak betetzen direla bermatzen dute, 2.3. puntuarekin bat etorritik. | 24 |
|-----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

- |      |                                                                    |    |
|------|--------------------------------------------------------------------|----|
| 3.2. | 2.3. puntua betetzen ez bada, Administrazioak kontratua eteten du. | 25 |
|------|--------------------------------------------------------------------|----|

**4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK****4.1. OSASUNGINTZA**

|        |                                                                                                                                                                                                                |           |
|--------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 4.1.1. | Administrazioak kontuan hartzen ditu hizkuntza-eskubideak osasun-zerbitzuak emateko garaian.                                                                                                                   | <b>26</b> |
| 4.1.2. | Egoiliarrei hizkuntza-gaitasun egokia eskatzen zaie.                                                                                                                                                           | <b>27</b> |
| 4.1.3. | A.2.3. atalean jasotzen den plangintza garatzean, administrazioek modu berezian lantzen dute arlo hau, haren ezaugarri bereziak direla-eta, eta planaren jarraipena egiteko sistemaren bat abian jartzen dute. | <b>28</b> |
| 4.1.4. | Plangintzak honako hauek lehenesten ditu hizkuntza-gaitasun egokia eskatzeko garaian: familia-medikuak, pediatriak, psikologoak eta psikiatriak, eta zuzenean jendaurrean diharduten langileak.                | <b>29</b> |
| 4.1.5. | Plangintzako beste alderdi batzuk bat datoz A.2.3. atalean zehaztutakoarekin.                                                                                                                                  | <b>30</b> |

**4.2. JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA**

|        |                                                                                                                                                                                                                                                                         |           |
|--------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 4.2.1. | Administrazioek aintzakotzat hartzen dituzte hizkuntza-eskubideak zerbitzu juridikoak emateko garaian eta, komunitate gutxituen eskubideak errekonozitzeko, justizia-administrazioek lege-prozedurak hizkuntza gutxituan egiteko eskubidea bermatzen diete herritarrei. | <b>31</b> |
| 4.2.2. | Tratamendu-berdintasunaren printzipioari jarraiki, hizkuntza-komunitateko kideek eskubidea dute ahoz nahiz idatziz zuzenean jarduteko, interpreterik gabe.                                                                                                              | <b>32</b> |
| 4.2.3. | A.2.3. atalean jasotzen den plangintza garatzean, administrazioek modu berezian lantzen dute arlo hau, haren ezaugarri bereziak direla eta, eta planaren jarraipena egiteko sistemaren bat abian jartzen dute.                                                          | <b>33</b> |
| 4.2.4. | Justizia-administrazioak neurri egokiak aplikatzen ditu epaile, fiskal, idazkari eta bestelako profesionalak hizkuntza-gaitasuna eskuratu dezaten.                                                                                                                      | <b>34</b> |
| 4.2.5. | Justizia-administrazioak neurriak hartzen ditu lege-testuak, kodeak eta antzeko materialak hizkuntza gutxituan daudela bermatzeko.                                                                                                                                      | <b>35</b> |
| 4.2.6. | Plangintzako beste alderdi batzuk bat datoz A.2.3. atalean zehaztutakoarekin.                                                                                                                                                                                           | <b>36</b> |



|             |                                                                                                                                            |    |
|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 4.2.7.      | Justizia-administrazioak / Administrazio publikoak neurriak hartzen ditu erroldatze ofiziala hizkuntza gutxituan ahalbidetzeko.            | 37 |
| <b>4.3.</b> | <b>POLIZIA</b>                                                                                                                             |    |
| 4.3.1.      | Administrazioak neurriak hartzen ditu poliziako kideak hizkuntza gutxituan aritzeko gai direla bermatzeko.                                 | 38 |
| 4.3.2.      | Administrazioak kanpoko enpresak kontratatzen dituenean zaintzaz edo segurtasunaz arduratze, hizkuntza-irizpide batzuk betearazten dizkie. | 39 |

## B. KOMUNIKAZIOA

|      |                                                                                                                                                                   |    |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1    | Kanpo- eta barne-komunikazioetan bete beharreko jarraibide lotesle batzuk finkatzen ditu Administrazioak. Alderdi hauek zehazten dira bertan:                     | 40 |
| 1.1. | Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere irudi korporatiboan eta errotulazioan.                                                                      | 41 |
| 1.2. | Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere barne- eta kanpo-komunikazioan.                                                                             | 42 |
| 1.3. | Araututa dago edozein dokumentu zein argitalpen ofizialek balio juridiko osoa izango dutela, soilik hizkuntza gutxituan egon arren.                               | 43 |
| 1.4. | Administrazioak neurriak hartzen ditu ekitaldi publikoetan hizkuntza gutxitua erabiltzen dela bermatzeko, esaterako, bilera publikoetan, aurkezpen publikoetan... | 44 |

## C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

|    |                                                                                                                                                    |    |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. | Administrazioak bermatu egiten du hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bultzatzen du. | 45 |
| 2. | Administrazioak neurriak hartzen ditu lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak hizkuntza gutxituan egin daitezen.                    | 46 |
| 3. | Administrazio-dokumentuak hizkuntza gutxituan sortzeko aukera ematen du Administrazioak.                                                           | 47 |
| 4. | Bermatuta dago lan-deialdietako frogak hizkuntza gutxituan egiteko aukera.                                                                         | 48 |
| 5. | Lan-eremuan hizkuntza gutxituaren aldeko jarrerak bultzatzen eta saritzen ditu Administrazioak.                                                    | 49 |

### 3. HEZKUNTZA

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29 eta 30. artikuluekin lotutako neurriak.

#### A. HEZKUNTZA FORMALA

##### 1. HAUR-HEZKUNTZA

|      |                                                                                                                          |    |
|------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1.1. | Zuzenean edo zeharka finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxe guztietan haurrei hizkuntza gutxituan irakasten zaie. | 50 |
| 1.2. | Lehen urrats gisa, hizkuntza gutxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.                    | 51 |
| 1.3. | Eskolaz kanpoko jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                  | 52 |
| 1.4. | Ikastetxeko langileek hizkuntza gutxituan aritzeko gaitasuna dute.                                                       | 53 |
| 1.5. | Baliabide osagarriak eskaintzen zaizkie eskolak hizkuntza gutxituan jasotzen dituzten taldeei.                           | 54 |
| 1.6. | Komunikazioari dagokionez, Administrazio Publikoaren ataleko B atala ikastetxe guztietan aplikatzen da.                  | 55 |

##### 2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

|      |                                                                                                                                                                                                                                                                   |    |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.1. | Bada murgiltze- eta mantentze-sistema orokor bat hizkuntza gutxituan.                                                                                                                                                                                             | 56 |
| 2.2. | Lehen urrats gisa, hizkuntza gutxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.                                                                                                                                                             | 57 |
| 2.3. | Hizkuntza gutxituaren bidezko irakaskuntza, ahozko gaitasunak eta alfabetatzea barne, eskuragarri dago.                                                                                                                                                           | 58 |
| 2.4. | Eskolarekin zerikusia duten jarduera guztiak -ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten direnak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.- eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                                                            | 59 |
| 2.5. | Hizkuntza gutxituko gaitasunak eskuratzeak dakartzan onurei buruzko informazioa aktiboki zabaltzen da etorkinen artean.                                                                                                                                           | 60 |
| 2.6. | Baliabide osagarriak esleitzen dira.                                                                                                                                                                                                                              | 61 |
| 2.7. | Ikastetxeek beren hizkuntza-proiektuak diseinatu dituzte eta aplikatzen ari dira, beren hasierako diagnosi, helburu eta xede-adinekin. Curriculumeko hizkuntza guztien ibilbidea zehazten da proiektu horietan, bai ikasgela barrurako bai ikasgelatik kanporako. | 62 |

|       |                                                                                                                                   |    |
|-------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.8.  | Giza baliabideak eta baliabide materialak eskuragarri daude irakasgai guztiak hizkuntza gutxituan irakasteko, bigarren hezkuntzan | 63 |
| 2.9.  | Langile guztiek gaitasuna dute hizkuntza gutxituan aritzeko.                                                                      | 64 |
| 2.10. | Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko B atala eskola-sistema osoan aplikatzen da.                          | 65 |

### 3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

|      |                                                                                                                                                                                                                                              |    |
|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 3.1. | Lanbide-heziketa eta -trebakuntza hizkuntza gutxituan eskuragarri dago eskatzen duten ikasleentzat.                                                                                                                                          | 66 |
| 3.2. | Lantokiko prestakuntza eta praktikak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                                                                                                                                  | 67 |
| 3.3. | Arlo profesional berriak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                                                                                                                                              | 68 |
| 3.4. | Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die ikastetxeei. Ikastetxearen errealitatearen arabera, hizkuntza nagusia eta atzerriko hizkuntzak noiz eta nola txertatuko diren erabakitzea da proiektu horren zereginetako bat. | 69 |
| 3.5. | Hizkuntza gutxituan aritzeko gaitasuna dute langile guztiek.                                                                                                                                                                                 | 70 |
| 3.6. | Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko B atala lanbide-heziketa zentroetan eta -trebakuntza zentroetan aplikatzen da.                                                                                                  | 71 |

### 4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZA

|        |                                                                                                                                                               |    |
|--------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 4.1.   | IKASKETA-PLANA                                                                                                                                                |    |
| 4.1.1. | Goi-malako hezkuntzako fakultate guztiek beren plangintza dute hizkuntza gutxituko langile eta ikasleak identifikatu, eta haien beharrei lehentasuna emateko. | 72 |
| 4.1.2. | Unibertsitate mailako ikasgai guztiak hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.                                                                                  | 73 |
| 4.1.3. | Hizkuntza gutxituko ikastaro eta jardueren benetako eskuragarritasunari buruzko txosten bat idazten eta argitaratzen da aldiro-aldiro.                        | 74 |
| 4.2.   | IKERKETA                                                                                                                                                      |    |

|        |                                                                                                                        |    |
|--------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 4.2.1. | Jatorrizko ikerketa egin eta dibulgazio akademikoa argitaratu daiteke hizkuntza gutxituan.                             | 75 |
| 4.2.2. | Ebaluazio-agentzia eta -instituzioek ez dituzte hizkuntza gutxituan egindako ekarpen zientifikoak gutxiago baloratzen. | 76 |
| 4.3.   | Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko B atala unibertsitateetan aplikatzen da.                  | 77 |

## 5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

|      |                                                                                                                                                                                                                                                                                              |    |
|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 5.1. | Jabetza publikoko musika- eta arte-eskola guztietako ikastaro guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                                                                                                                                                 | 78 |
| 5.2. | Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die halako ikastetxeei. Egungo errealitatearen arabera, hizkuntza gutxituan zer eskaintzen den zehaztea eta programa osoa hizkuntza gutxituan eskaintzeko egutegi bat finkatzea izango da hizkuntza-proiektuaren zereginetako bat. | 79 |
| 5.3. | Jabetza publikoa ez duten, baina zuzenean edo zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ere antzeko ezaugarriak dituen hizkuntza-proiektua aurkeztu behar dute.                                                                                                          | 80 |
| 5.4. | Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko B atala aplikatuko da musika- eta arte-eskoletan.                                                                                                                                                                               | 81 |

## B. HEZKUNTZA INFORMALA

### 1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

|      |                                                                                                                                                                                                                                                                                           |    |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1.1. | Jabetza publikoko aisialdi-zentroetako jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.                                                                                                                                                                                            | 82 |
| 1.2. | Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die halako zentroei. Egungo errealitatearen arabera, hizkuntza gutxituan zer eskaintzen den zehaztea eta programa osoa hizkuntza gutxituan eskaintzeko egutegi bat finkatzea izango da hizkuntza-proiektuaren zereginetako bat. | 83 |
| 1.3. | Jabetza publikoa ez duten, baina zuzenean edo zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten zentroek ere antzeko ezaugarriak dituen hizkuntza-proiektua aurkeztu behar dute.                                                                                                          | 84 |

## C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

|                                                                                                                                                                                                                          |           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. IRAKASLEAK</b>                                                                                                                                                                                                     |           |
| 1.1. Irakasle-eskolek hizkuntza gutxituaren ezagutza eta erabileran trebatzen dituzte irakasleak.                                                                                                                        | <b>85</b> |
| 1.2. Hizkuntza gutxituaren egoerari erantzuteko trebakuntza berezia ematen da, ondoren zehazten den moduan:                                                                                                              |           |
| 1.2.1. Irakasle-eskolek beren irakasgaiak hizkuntza gutxituan irakasteko trebatzen dituzte irakasleak, hizkuntza-maila altuarekin.                                                                                       | <b>86</b> |
| 1.2.2. Egoera eleaniztun batean murgiltze-eredua gauzatzeko gai izateko beharrezko trebakuntza espezifikoa ematen zaie irakasleei.                                                                                       | <b>87</b> |
| <b>2. HEZITZAILEAK</b>                                                                                                                                                                                                   |           |
| 2.1. Hezitzaileek (kirol eta aisialdikoak) hizkuntza gutxituan aritzeko gai izan behar dute titulazioa eskuratzeko.                                                                                                      | <b>88</b> |
| 2.2. Tresna egokiak eskaintzen dira hezitzaileen trebakuntzan, hizkuntza gutxituarentzat txarrak diren testuinguruetan moldatu ahal izateko, eta etengabeko prestakuntza nahiz ikasitakoa eguneratzeko aukera ematen da. | <b>89</b> |
| <b>3. ETENGABEKO TREBAKUNTZA</b>                                                                                                                                                                                         |           |
| 3.1. Etengabeko trebakuntzaren barruan hizkuntza gutxitua irakasten da.                                                                                                                                                  | <b>90</b> |

## D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

|                                                                                   |           |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 1. Hizkuntza gutxitua ikasi nahi duten herritarrek dohainik ikasteko aukera dute. | <b>91</b> |
| 2. Ikastaroak lurralde osoan eskaintzen dira, herri-ekimenekin elkarlanean.       | <b>92</b> |
| 3. Hizkuntza gutxitua irakasten da langabetuei zuzendutako trebakuntzan.          | <b>93</b> |
| 4. Hizkuntza gutxitua irakasten da helduen etengabeko prestakuntzan.              | <b>94</b> |
| 5. Hizkuntza gutxituan alfabetatzeko ikastaroak dohainik ematen dira.             | <b>95</b> |

## E. CURRICULUMA ETA MATERIALAK

### 1. CURRICULUMA

|      |                                                                                                                                                                                      |    |
|------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1.1. | Ikasketak amaitzerako ikasleak gai dira hizkuntza gutxituan, hizkuntza nagusian eta atzerriko hizkuntza bat edo bitan aritzeko; hizkuntza gutxituko hiztun eleaniztunak dira, beraz. | 96 |
| 1.2. | Bertako kultura ardatz hartuta, Europako kultura eta kultura unibertsala lantzen dira curriculumean.                                                                                 | 97 |
| 1.3. | Curriculumean gai hauek jorratzen dira, bereziki: soziolinguistika, hizkuntza-aniztasuna eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzei buruzko oinarriak.                                     | 98 |
| 1.4. | Gurasoekin egiten diren bileretan hizkuntza gutxitua curriculumean egoteak dakartzan onurak azaltzen zaizkie aldiro-aldiro.                                                          | 99 |

### 2. IRAKAS-MATERIALA

|      |                                                                                                      |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 2.1. | Hizkuntza gutxituan irakasteko material egokia eskuragarri dago.                                     | 100 |
| 2.2. | Testuliburuak hizkuntza gutxituan prestatzen dituzten argitaletxeek diru-laguntzak jasotzen dituzte. | 101 |

## 4. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 47, 48, 49, 50, 51 eta 52. artikuluekin lotutako neurriak.

### A. ARAUBIDEA

|    |                                                                                      |     |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Behar bezala araututa dago hizkuntza gutxituko kontsumitzaileen eskubideen aitortza. | 102 |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------|-----|

### B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

#### 1. OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN BABESA:

|      |                                                                                                                                                                                    |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1.1. | Produktuen osasun eta segurtasunari buruzko mezuak, hala nola sendagaien jarraibideak, produktuen arriskuei buruzko informazioa, etab., hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude. | 103 |
| 1.2. | Merkataritza-lokaletako osasun eta segurtasunari buruzko jakinarazpen eta jarraibideak hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.                                                  | 104 |

**2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA:**

|      |                                                                                                                                                                            |     |
|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 2.1. | Informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri dago (fakturak, aurrekontuak, tarifak, produktuen katalogoak, ziurtagiriak, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko gidak, etab.). | 105 |
| 2.2. | Kontsumo-harremanak hizkuntza-eremuaren kanpotik kudeatzen direnean ere produktu eta zerbitzuei dagokienez antzeko neurriak hartzen dira.                                  | 106 |
| 2.3. | Errotulazioa eta merkataritza-informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.                                                                                           | 107 |
| 2.4. | Produktuen aplikazio informatiko, software, interfaze eta abarrak hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.                                                               | 108 |
| 2.5. | Merkataritza-jardueretan hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatzeko marketin- eta publizitate-jarraibideak sustatzen dira.                                                | 109 |

**3. GATAZKAK**

|      |                                                                                                      |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 3.1. | Kontsumo-gatazkak ebazteko garaian, hizkuntza gutxituko hiztunen kontsumo-eskubideak bermatzen dira. | 110 |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

**4. EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GUTXITUAN ERE BERMATZEN DIRA.**

|      |                                                                                                                                                                                                                        |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 4.1. | Honako alor hauetan hizkuntza-plangintzak garatzen dira: aseguru-etxeak, energia-hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefono-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, osasungintza, posta-zerbitzua... | 111 |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

**C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN**

|    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |     |
|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Legez babestuta dago langileek lantokian hizkuntza gutxituan lan egiteko duten eskubidea.                                                                                                                                                                                                                                                | 112 |
| 2. | Enpresek hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatzen dute: trebakuntza-planak; etengabeko prestakuntza; lan-kontratuak eta lan-hitzarmenak; txosten, mezu, jakinarazpen eta bestelako dokumentuak; barneko lan-prozedurak; hizkuntza-paisaia; hizkuntza erabiltzen duten materialak (katalogoak, Interneteko saltokiak, publizitatea...). | 113 |
| 3. | Enpresek bermatu egiten dute hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bermatzen dute.                                                                                                                                                                                           | 114 |

**D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA**

|    |                                                                                                                                                                 |     |
|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Sindikatuak hizkuntza gutxituari buruzko klausulak sartzen dituzte negoziazio kolektiboan, langileen hizkuntza-eskubideak eta gizarte-erantzukizuna bermatzeko. | 115 |
| 2. | Enpresek modu proaktiboan jarduten dute hizkuntza gutxituko komunitateekin gizarte-erantzukizuna garatzeko garaian.                                             | 116 |
| 3. | Enpresek modu proaktiboan jarduten dute esparru sozioekonomikoan hizkuntza gutxitua sustatzeko batzordeak eratzeke garaian.                                     | 117 |
| 4. | Sindikatuak hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak eta babesa bultzatzen dute barne-mailan.                                                                      | 118 |

**5. ONOMASTIKA**

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 31, 32, 33. eta 34. artikuluekin lotutako neurriak.

**A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO**

|    |                                                                                                                                                                                            |     |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Entitate autonomo bat (hizkuntza-akademia bat, esaterako) arduratzen da hizkuntza gutxituko izenak estandarizatzeaz, hizkuntzaren aniztasuna errespetatuz.                                 | 119 |
| 2. | Administrazioak eta instituzioek hizkuntza-akademiak zehaztutako izendegiak hartzen dituzte erreferentziazat.                                                                              | 120 |
| 3. | Hizkuntza-akademiei askatasuna errekonozitzen zaie hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietan oinarritutako izendegiak sortzeko, eta ez daude hizkuntza nagusiaren irizpideak hartzera behartuta. | 121 |
| 4. | Goi-mailako administrazio-organoa arduratzen da hizkuntza-akademiek onartutako izendegiak instituzio guztien esku jartzeaz.                                                                | 122 |

**B. PERTSONA-IZENAK**

|    |                                                                                                                                                        |     |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Beren izen-abizenak erregistro ofizialetan hizkuntza gutxituan eta jatorrizko grafian erregistratzeko eskubidea legez errekonozitzen zaie herritarrei. | 123 |
| 2. | Erregistroek aukera ematen diete herritarrei beren izen-abizenak hizkuntza gutxitura itzuli edota hizkuntza gutxituaren grafiara aldatzeko.            | 124 |
| 3. | Administrazioak ezin du herritarren izen-abizenen grafia aldatu edo aldarazi, ez eta haien forma itzulia erabili edo erabilarazi ere.                  | 125 |



## C. LEKU-IZENAK

|    |                                                                                                                                                                                                                                     |     |
|----|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Legez araututa dago erregistro ofizial, errotulazio eta mapa ofizialetan hizkuntza gutxituko leku-izenek agertu behar dutela beti.                                                                                                  | 126 |
| 2. | Hizkuntza gutxituko leku-izenen estatus legala bermatzen du legeak.                                                                                                                                                                 | 127 |
| 3. | Enpresa pribatuak hizkuntza gutxituko leku-izenak erabiltzera behartuta daude berek kudeatutako garraio-ibilbide eta autobideetan.                                                                                                  | 128 |
| 4. | Leku-izen guztiak biltzen dituen datu-base bat jarri dute eskuragarri administrazio publikoek.                                                                                                                                      | 129 |
| 5. | Hizkuntza gutxituko leku-izenak berreskuratu, berrezarri eta ofizializatu egiten dira hizkuntzaren erabilera-eremu historikoan.                                                                                                     | 130 |
| 6. | Administrazio publikoekin hitzarmenak dituzten edo diru-laguntzak (zuzenak zein zeharkakoak) jasotzen dituzten enpresek eta bestelako erakundeek hizkuntza gutxituko leku-izenak erabili behar dituzte.                             | 131 |
| 7. | Administrazio publikoek jarraibide batzuk ematen dituzte, enpresa pribatuek kartografia- nahiz lokalizazio-xedeetarako egiten dituzten gailu eta tresnetan (GPSan, esate baterako) hizkuntza gutxituko leku-izenak erabil ditzaten. | 132 |

## 6. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 35, 36, 37, 38, 39 eta 40. artikuluekin lotutako neurriak.

### A. OINARRIZKO NEURRIAK

|    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |     |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Administrazio publikoak diseinatu eta garatutako hizkuntza-politikaren barruan bada informazio- eta komunikazio-teknologiei (IKT) buruzko atal bat, hedabideek eta IKTek hizkuntza-politikan duten lekua zehazten duena. Era berean, bere komunikazio- eta IKT-politikak diseinatzeko garaian, Administrazio publikoak hizkuntzari buruzko atal bat prestatzen du. | 133 |
| 2. | Komunikazio-sistema bat garatzen da hizkuntza gutxiturako, komunikazio-esparru guztiak aintzat hartuz. Hizkuntzaren erabilera-eremuko erakunde eta instituzioek kudeatzen dute sistema hori.                                                                                                                                                                       | 134 |
| 3. | Komunikazio-sistema hedabide publikoetako eta herri-ekimeneko hedabideetako ordezkariak kudeatzen dute modu osagarrian, eta elkarrekin lan egiten dute, baldintza berberetan eta elkarren lana errepikatzea saihestuz.                                                                                                                                             | 135 |

|    |                                                                                                                                                                                     |     |
|----|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 4. | Hizkuntza gutxituari laguntzeko komunikazio-politika bat garatzen da, administrazio publikoen eta herri-ekimeneko erakundeen edo erakunde pribatuen arteko elkarlanean oinarrituta. | 136 |
| 5. | Administrazio publikoek egitura bat sortzen dute hizkuntza gutxituek hedabideetan duten presentziaren jarraipena egiteko.                                                           | 137 |

## B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

|           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |     |
|-----------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| <b>1.</b> | <b>JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |     |
| 1.1.      | Bada programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duen jabetza publikoko irratikate bat.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | 138 |
| 1.2.      | Bada programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duen jabetza publikoko telebistakate bat.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 139 |
| 1.3.      | Bada eduki guztia hizkuntza gutxituan argitaratzen duen eta finantzazioa bermatuta duen egunkari bat.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | 140 |
| 1.4.      | Nagusiki hizkuntza nagusian diharduten jabetza publikoko hedabide guztietan bermatuta dago hizkuntza gutxituaren gutxieneko presentzia. Hedabide bakoitzari egokitutako baliabideak esleitzen dira horretarako: prentsaren kasuan, atal batzuk hizkuntza gutxituan; irradian, hizkuntza gutxituko segmentuak programazioan; telebistan, segmentu batzuk azpi-idatziekin edo bigarren audio-kanal batekin ematen dira; Interneteko hedabideetan, hizkuntza-bertsioak eskaintzen dira. Elementu horien presentzia kuota zehatzen bidez araututa dago, hizkuntza-politikan finkatutako gutxieneko batzuekin. | 141 |
| <b>2.</b> | <b>JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENEN HEDABIDEAK</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |     |
| 2.1.      | Hizkuntza gutxituan oinarritutako edo guztiz hizkuntza horretan diren hedabideek gainerakoen lege-estatus bera dute.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | 142 |
| 2.2.      | Hizkuntza gutxituko hedabideek ez dute beste hizkuntzarik erabili beharrik.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | 143 |
| 2.3.      | Administrazioarekin kontraturen bat duten edo harengandik zerbitzu, laguntza edo prestaziorik jasotzen duten jabetza pribatuko hedabideek hizkuntza gutxitua bultzatzeko kuota eta neurri batzuk bete behar dituzte.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | 144 |
| 2.4.      | Administrazio publikoek kuota-sistemak aplikatzen dituzte, publizitate instituzionalean eskualdeko hizkuntzak, bereziki hizkuntza gutxitua, erabiltzen dela bermatzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | 145 |
| 2.5.      | Programazio osoa hizkuntza gutxituan duten hedabideek laguntza bereziak jasotzen dituzte.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 146 |

**3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK**

|      |                                                                                                                                                                                                                                               |            |
|------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 3.1. | Inbertsio-politika jarraitu bat aplikatzen da, hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza normalizatzeko, diskriminazio positiboaren bidez.                                                                                                     | <b>147</b> |
| 3.2. | Administrazio publikoek hizkuntza gutxituko hiztunek beren hizkuntzan aritzeko baliabideak jartzen dituzte, eta hizkuntza gutxituko produkzioa sustatzen dute, hizkuntza nagusiko hedabideen artean hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko | <b>148</b> |
| 3.3. | Administrazio publikoek neurriak hartzen dituzte hizkuntza gutxituko hedabideen ikusgarritasuna sustatzeko, komunikazio-kanpainen bidez, hizkuntza gutxituko prentsa leku publikoetan egoteko laguntzen bidez, eta abar.                      | <b>149</b> |

**4. EDUKIA**

|      |                                                                                                                       |            |
|------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 4.1. | Hizkuntza gutxituari buruzko estereotipoak edo jarrera arrazistak bultzatzen dituzten hedabideak zigortu egiten dira. | <b>150</b> |
| 4.2. | Hedabideek beharrezko neurriak eskaintzen dituzte, hizkuntza gutxituko hiztunen hizkuntza-hautuari erantzuteko.       | <b>151</b> |
| 4.3. | Eduki lokala sustatzen da hedabideetan, hizkuntzaren eta haren erabilera-eremuaren arteko lotura sendotzeko.          | <b>152</b> |

**5. HEDABIDE BERRIAK**

|      |                                                                                                                                                                                                                              |            |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 5.1. | Irrati- edo telebista-lizentzia berriak ematen direnean, lizentzia batzuk gordetzen dira programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duten irrati- eta telebista-kateentzat.                                                 | <b>153</b> |
| 5.2. | Irrati- eta telebista-lizentzia berriak ematen direnean, hizkuntza kudeatzeko jarraibide batzuk ematen zaizkie hizkuntza gutxituan emititzen ez duten kateei, emisio batzuk hizkuntza gutxituan egiten dituztela bermatzeko. | <b>154</b> |

**6. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK**

|      |                                                                                                           |            |
|------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 6.1. | Unibertsitate-mailako ikastaroak ematen dira, komunikazio-profesionalak hizkuntza gutxituan trebatzeko.   | <b>155</b> |
| 6.2. | Hizkuntza gutxituan lan egiten duten komunikazio-sektoreko profesionalak beren elkarteak osatu ditzakete. | <b>156</b> |

**7. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK**

|      |                                                                                                                                                                                                                                                             |     |
|------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 7.1. | Hizkuntza gutxitu bat lurralde batean baino gehiagotan hitz egiten denean, hedabideen emisioak beste lurraldeetan ere jasotzen dela bermatzen da.                                                                                                           | 157 |
| 7.2. | Hedabiderik ez badago, gutxienez telebista-kate batek eta irrati-kate batek komunitatearen hizkuntzan emititzen duela eta egunkari bat komunitatearen hizkuntzan argitaratzen dela bermatzen dute administrazio publikoek, behar denean elkarlanean arituz. | 158 |

**C. TEKNOLOGIA BERRIAK**

|    |                                                                                                                                                                                                                            |     |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Administrazio publikoen softwarea hizkuntza gutxituan lokalizatuta edo hizkuntza gutxitura itzulita dago, eta herritarren esku jartzen da.                                                                                 | 159 |
| 2. | Administrazio publikoaren laguntza zuzena edo zeharkakoa jasotzen duten antolakunde, enpresa eta negozio guztiek beren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan eman behar dituzte, diru-laguntzak jasotzeko baldintza gisa. | 160 |
| 3. | Araututa dago Administrazioaren hornitzaileek eskainitako zerbitzu digital guztiak hizkuntza gutxituan egongo direla.                                                                                                      | 161 |
| 4. | Produktuak hizkuntza gutxituan egotea eskatzen dute IKTetarako diru-laguntza guztiek.                                                                                                                                      | 162 |
| 5. | Hizkuntza gutxituaren erabilera errazten duten tresnak (zuzentzaileak, itzulpen-softwarea, etab.) herritarren esku jartzen dira.                                                                                           | 163 |
| 6. | Administrazio publikoek hitzarmenak sinatzen dituzte enpresekin, hizkuntza gutxituaren presentzia digitala handitzeko.                                                                                                     | 164 |
| 7. | Gazteei zuzendutako produktu digitalak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan. Horretarako baliabideak eta epeak zehazten dira.                                                                                             | 165 |
| 8. | Hizkuntza gutxituan garatutako proiektu digitalen lehentasuna dute diru-laguntzetan.                                                                                                                                       | 166 |

**7. KULTURA**

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 41, 42, 43, 44, 45 eta 46. artikuluekin lotutako neurriak.

**A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA**

|    |                                                                                              |     |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Legeak onartzen dira hizkuntza gutxituko kultura jende guztiarentzat eskuragarri egon dadin. | 167 |
|----|----------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

|    |                                                                                                                                                                                                     |     |
|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 2. | Administrazio publikoek aurrekontu orokorretan kontu-sail berezibatzuk dituzte hizkuntza gutxituko kultura sustatu eta kultura unibertsala hizkuntza gutxituaren bidez jasotzeko aukera bermatzeko. | 168 |
|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|

## B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

### 1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

|      |                                                                                                                                                            |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1.1. | Hizkuntza gutxituan sorkuntza egiten duten artisten lana errekonozitzen eta babesten da, eta sortzailearen estatutua sortu da haien eskubideak babesteko.  | 169 |
| 1.2. | Bada kontu-sail bat hizkuntza gutxituko kultur proiektuetan inbertitzeko.                                                                                  | 170 |
| 1.3. | Bada laguntza-sistema bat hizkuntza gutxituko sortzaileentzat.                                                                                             | 171 |
| 1.4. | Administrazioak inbertsio-politika batzuk finkatzen ditu hizkuntza gutxituan aritzen diren kultur eragileak eta kultur industria babesteko.                | 172 |
| 1.5. | Bada kuota bat instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan hizkuntza gutxituan sortutako kultur adierazpideak bermatzeko. | 173 |
| 1.6. | Tresnak eskaintzen dira sorkuntza-esparru guztietako terminologia hizkuntza gutxituan eskuragarri egon dadin.                                              | 174 |

### 2. TRANSMISIOA

|      |                                                                                                                                                                                              |     |
|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 2.1. | Hedabide publikoek hizkuntza gutxituan sortutako kulturaren berri zabaltzeko programak dituzte.                                                                                              | 175 |
| 2.2. | Hedabide publikoetako albistegietan tarte bat eskaintzen zaio hizkuntza gutxituko kulturari, eta era guztietako kultur adierazpideen berri ematen da bertan.                                 | 176 |
| 2.3. | Zuzenean nahiz zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten hedabideek hizkuntza gutxituko kultur sorkuntza berriei buruz eman beharreko informazioa arautzen duen kuota bat ezarri da. | 177 |

### 3. IKUSGARRITASUNA

|      |                                                                                                      |     |
|------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 3.1. | Hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultur adierazpideak bermatuta daude azpiegitura publikoetan. | 178 |
| 3.2. | Bada hizkuntza gutxituaren kultur agenda bat Interneten.                                             | 179 |

|      |                                                                                                                                                                      |     |
|------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 3.3. | Banaketa eta sustapenerako laguntza ekonomikoa ematen zaie hizkuntza gutxituan sortutako produktu guztiei, haien ikusgarritasuna bermatzeko.                         | 180 |
| 3.4. | Kultur ekitaldietan (programetan, paisaian, edukian, etab.) hizkuntza-irizpideak finkatzen dira, hizkuntza gutxituaren ahozko nahiz idatzizko presentzia bermatzeko. | 181 |
| 3.5. | Nazioarteko sorkuntza-foroetan hizkuntza gutxituaren ikusgarritasuna bultzatzen da modu proaktiboan (sarien bidez, nazioarteko jaialdietan, etab.).                  | 182 |

## C. KULTURA UNIBERTSALA HIZKUNTZA GUTXITUAN

|    |                                                                                                                   |     |
|----|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. | Beste hizkuntza batzuetan sortutako kultur produktuak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan (itzulpenaren bidez). | 183 |
| 2. | Filmak hizkuntza gutxitura itzultzen dira (azpi-idatziekin nahiz bikoiztuta).                                     | 184 |
| 3. | Hizkuntza gutxituan eman beharreko kuota bat ezartzen zaie zine-aretoei.                                          | 185 |

# 1. ERANSKINA

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1996) izan da Protokoloari norabidea jarri dion ituna. Halere, azpimarratu nahiko genuke ebaluazio-adierazleak zehazterako orduan UNESCOk onartutako Hizkuntzen Bizitasuna eta Desagertzeko Arriskua txostena (2003) dokumentua ere izan dela oinarrietako bat.

Bi dokumentu horietaz gain, honako Itun edo dokumentu hauek ere izan ditu erreferente Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak:

## NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966)
- Teherango Aldarrikapena (1968)
- Haurren Eskubideen Aldarrikapena (1989)
- Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso eta Linguistikoen Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (1992)
- Vienako Aldarrikapena eta Ekintza Programa (1993)
- Herri Indigenen Eskubideei Buruzko Aldarrikapena (2007)

## EUROPAKO KONTSEILUA

- Giza Eskubideen eta Oinarritzko Eskubideen Babeserako Hitzarmena (1950)
- Gutxiengo eta Erregio Hizkuntzen Europako Ituna (1992)
- Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen markoa (1994)

## UNESCO

- Kultur Aniztasunari Buruzko Aldarrikapen Unibertsala (2001)
- Adierazpen Kulturalen Aniztasunaren Babes eta Sustapenerako Hitzarmena (2005)

## SEGURTASUN ETA LANKIDETZARAKO EUROPAKO ERAKUNDEA

- Gutxiengo Nazionalen Hezkuntza Eskubideei Buruzko Hagako Gomendioak (1996)
- Gutxiengo Nazionalen Hizkuntza Eskubideei Buruzko Osloko Gomendioak (1998)
- Gutxiengo Nazionalen Bizitza Publikoan Parte Hartze Eraginkorrerako Eskubideei Buruzko Lundeko Gomendioak (1999)

## EUROPAKO BATASUNA

- Europako Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna
- Lisboako Ituna
- Europako Batzordearen Txostena erregio edo gutxiengoen hizkuntzetarako ekarpenekin aniztasunaren eta kulturaren hedapenerako testuinguruan
- Europako Parlamentuaren 2013ko irailaren 11ko ebazpena, arriskuan dauden Europako hizkuntzen eta Europako Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzkoa

## PEN INTERNATIONAL

- Hizkuntza Eskubideen Gironako Manifestua

## NPLD - HIZKUNTZA ANIZTASUNA SUSTATZEKO SAREA

- Hizkuntza Aniztasunerako Bide Orria

# Jarraipen batzordea

---



UNREPRESENTED  
NATIONS & PEOPLES  
ORGANIZATION  
unpo.org

[ = ]

c i e m e n



EUROPEAN CENTRE  
FOR  
MINORITY ISSUES

L i n  
g u a  
P a x

Linguapax  
International

pen  
INTERNATIONAL

ELEN | EUROPEAN LANGUAGE  
EQUALITY NETWORK

[www.protokoloa.eus](http://www.protokoloa.eus)

## Idazkaritza

---



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA